



**EKOLOGISTAK MARTXAN-EK ZABOR EKOIZPENAREN MURRIZKETA
HELURU DUEN KANPAINA ABIARAZI DU, UR BOTILEN
KONTSUMOAREN GUTXITZEA ARDATZ DUENA (URA, PITXERRETIK
HOBETO!)**

Ekologistak Martxan-Bizkaiak, Bilboko Auzo Elkarteen Federazioarekin eta hainbat kontsumitzaile elkarterekin (EKA, UCE, URKOA) elkarlanean, ur botilatxoaren kontsumoa murriztea helburu duen kanpaina bat sustatu du. Kanpainak Ingurumen Sailaren diru-laguntza jaso du.

Botilaratutako ura kontsumitzen dugunean, petrolio kontsumitzen ari gara, petrolio hori behar baita urruneko lekuetatik ekartzeko eta ontziaren fabrikaziorako. Baina, horrez gain, deuseztatzen zaila den hondakina sortzen ari gara, edo kutsagarria dena, behintzat (errausketa).

Birziklatzearen gakoan ipini nahi dugu arreta: MURRIZTEA. Azken urteotan hainbesteko indarra hartu duten botilatxoaren bitartez, kontsumitzaileak, ostalariak eta udal agintariak hausnartzera bultzatu nahi ditugu, gure hondakinak gutxitu behar ditugula agerian utzi, eta horretarako biderik onena hondakinik ez sortzea dela ikusarazi.

Bizkaiko jatetxeetako menuetan agertzen den ur botilaratua pitxerrekin trukatu nahi dugu, sortzen dugun zaborra gutxitzeko. Kontsumitzailearengan ere eragin nahi dugu tabernan ura edukiontzi horretan eska dezan, betiko "baso bat ur" horretara itzulita. Horrek guztiak, jakina, uraren kalitatean exigentzia maila areagotu beharra ekarriko dio Ur Partzuergoari.

Horretarako, beste hainbat ekimenen artean, mozioa aurkeztuko dugu Bilboko udalean eta Bizkaiko beste hainbat udaletan. Gainera, informazioa banatuko dugu taberna eta jatetxeetan euren laguntza eskatuta; gauza bera egingo da biztanleen artean.

***Ekologistak Martxan-eko Zabor Batzordea
Pilota 5. 48005 Bilbo. 944 790 119***